

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNA LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

- **1.2 FASEAREN - PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA - BEHIN-BETIKO EMAITZA.**
- **3.FASEA - ELKARRIZKETA ETA ANALISIS PERTSONALA EGITEKO DEIALDIA.**
- **EUSKARA PROBA EGITEKO DEIALDIA.**

1.2 Fasearen emaitzei buruzko alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta alegaziorik jaso ez denez, Hautatze Batzordeak,

ERABAKI DU

**Lehenengo.**- Mekanikari-Elektrikari Balioaniztuna Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren **1.2. Faseari – Proba Profesional Praktikoa - dagozkion behin-betiko emaitzak** argitaratzea (1. ERANSKINA).

**Bigarren.**- **GAI izan diren hautagaiei dei egiten zaie 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera joan daitezen.**

**2022ko martxoaren 18an izango da, OTEIC Taldearen bulegoetan, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia, 2.ERANSKINEAN adierazten den ordenaren arabera (deialdiaren ordua).**

Oinarrieta aurreikusitakoaren arabera, hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, haien ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Proba gainditzeko gutxienez 12 puntu lortu behar dira, 20 puntutik.

Hautagaiei dei bakarra egiten zaie eta jatorrizko NAN, pasaporte edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkeztu, ezin izango dituzte probak egin.

**Hirugarren.**- **4.Faseari buruzko informazioa - Merituen balorazioa:**

Hautagaiek Merituen Balorazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute (lan esperientzia profesionala), 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera deitzen zaien egunean (**baldin eta onarpen-prozesurako aurkeztutakoaz gain informazio gehiago badute**).

Gogorarazten da, Deiaidiaren oinarrien arabera, Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko dela lan-esperientzia profesionala.

**Laugarren.- Euskarazko merituari buruzko proba (idatzizko proba) egiteko deialdia egiten da.**

**Proba OTEIC Taldearen bulegoetan izango da, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 2018 Donostia, 3.ERANSKINEAN adierazten den ordenaren arabera (deialdiaren eguna eta ordua).**

Ez dute proba hori egin beharrik izango eta atal honetarako ezarritako gehieneko puntuazioa lortuko dute, onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean gutxienez Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera B1 maila edo baliokidea den Euskara maila behar bezala egiaztatua duten hautagaiak.

Gogorarazten da Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiak Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

**Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:**

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Stua.: Hautaketa Batzordea  
Donostia, 2022ko martxoak 15

## 1.ERANSKINA:

### 1.2 Fasearen behin-betiko emaitza - Proba Profesional Praktikoa.

---

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.2 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 21/30 puntu)
ME21-001	27,00
ME21-002	30,00
ME21-004	EZ DU GAINDITZEN
ME21-006	28,50
ME21-007	22,50
ME21-016	25,50
ME21-018	EZ AURKEZTUA

**2. ERANSKINA:**

**3.Fasea – Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 2018 Donostia ).**

---

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.PROBA EGUNA ETA ORDUA	2.PROBA EGUNA ETA ORDUA
ME21-001	<b>2022/03/18, 13:30etan</b>	2022/03/18, <b>14:30etan</b>
ME21-002		2022/03/18, <b>15:15etan</b>
ME21-006		2022/03/18, <b>16:00etan</b>
ME21-007		2022/03/18, <b>17:00etan</b>
ME21-016		2022/03/18, <b>17:45etan</b>

**3.ERANSKINA: Euskara Proba egiteko deialdia, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia ).**

---

IDENTIFIKAZIO KODEA	EGUNA	ORDUA
ME21-002	2022/03/18	16:00etan